

## **2004KO URRIAREN 5EKO** **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta lauko urriaren bostean, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, Bilkurari hasiera eman eta esaten du Milagros Alvarez Novoa Anderea bertaratu dela zinegotzi kargua hartzera. Zinegotzi kargu hau PSE-EEko Alejandro Crespo Blancok utzitakoa da eta uzte honen ondorioz Hautesle Batzorde Zentraletik Milagros Alvarez Novoaren izenean kredentziala bere egunean jaso zen Udal honetan eta interesatua bertaratu denez, zinegotzi kargua ematea proposatzen da.

Hau horrela, Udal Osoko Bilkurak zinegotzi karguaren jabetza ematen dio Milagros Alvarez Novoari, honek hartzen duelarik.

Bestalde Alkateak esaten du, telefonoz adierazi zaien bezala, hutsegite bat dela medio eguneko gai zerrendan Kreditu Gehigarri bidezko 2 zbk.dun Kreditu Aldaketa puntua ez zela sartu, gai hau Haziendako Batzordean tratatutakoa izaki, eta baita ere esaten du Eguneko gai Zerrendan Kontentzioso batean Udala bertaratzeko puntua sartu baldin bada ere azken egunotan Udaletxera etorritako korrespondentziaren arabera lau auzi direla, bi kontentzioso eta bi gizarte auzitegikoak, Udalaren aurka irekita daudenak eta beraz lauetarako Udala bertaratzearena laueta tratatzea planteatuko dela.

Gehitzen du Alkateak, Eguneko Gai Zerrendan sartu gabeko puntu hauetarako presakazko izaeraz tratatzea planteatzen dela.

Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuarekin, ontzat ematen du proposamena.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkeztzen dira 2004ko ekainaren 24an egindako ohiko osoko bilkurako eta uztailaren 20ko presakazko ez-ohiko bilkurako akta, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

## II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

## III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamenak irakurri dira.

Serna zinetotziak esaten du aurrekontuaren aurka bozkatu zutela baina bestalde aldaketa proposamen honetan planteatzen diren zenbait partidak herriaren onurarako izango direla, hala nola Azeria Zinemaren birreraikuntza proiektuarena, eta guzti horregatik abstenitu egingo direla.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta aho batez honako hau

### **ERABAKI DA**

**Lehenik.**- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

### **KREDITU GEHIKUNTZAK**

| <b>Kapituluak</b>          | <b>Izena</b>                            | <b>Gehikuntzak</b>  |
|----------------------------|-----------------------------------------|---------------------|
| II                         | Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak | 126.500,00 €        |
| IV                         | Transferentzia arruntak                 | 1.500,00 €          |
| VI                         | Inbertsio errealak                      | 97.200,00 €         |
| <b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b> |                                         | <b>225.200,00 €</b> |

## FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

| Kapitulua      | Izena                  | Zenbatekoa          |
|----------------|------------------------|---------------------|
| VIII           | Diruzaintzako gerakina | 225.200,00 €        |
| <b>GUZTIRA</b> |                        | <b>225.200,00 €</b> |

**Bigarren.**- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainetarako tramiteak eman beharko zaizkio.

### IV.- 1 SEKTOREKO PLAN PARTZIALAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA.-

Oraingo hau 1 Sektoreko Plan Partzialaren bigarren izapitatzea da. Lehenengoan Udal izapitatze osoa egin eta Diputaziora bidaltzeko zegoenean, egindako zenbait aurrikuspen ez zirela egokiak ikusten eta, hala nola eraikinen sakonerak, eta hori aldatzeak ordenamendu berri bat izapidetzea eskatzen zuela eta, hau horrela Gipuzkoako Foru Diputaziora behin betiko onarpenik ez emateko eskatu zitzaion Udal honetatik.

Gipuzkoako Foru Diputazioko Diputatuen Kontseiluak, 2004ko irailaren 7ko dataz ebatzi zuen Lazkaoko Arau Subsidiarioetako 1 Sektoreko Plan Partzialari behin betiko onarpenik ez ematea eta egun horretan bertan eman zion Lazkaoko Udalak haserako onarpena ordenamendu alternatiboa jasotzen duen 1 Sektoreko Plan partzialari. Onarpen hau Alkatetzaren Ebazpen bidez eman zitzaion.

Onarpen honen ondoren dokumentua jendaurrean erakusgai eduki da 15 lanegunetako denboraldian, iragarkiak Udaletxeko Iragarki Oholean jarri eta 2004ko irailaren 14ko 177 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2004ko irailaren 15eko Deia eta Berria egunkarietan argitaratuz.

Araudiko epearen barruan ez da alegaziorik aurkeztu.

Bestalde eta azaroaren 25eko Gipuzkoako Errepide eta Bideetako 17/1994 Foru Araueko 94. artikulua dioena betez Plan Partzial honen alde bat Gipuzkoako Errepide Zuzendaritzara bidali zen, honek txostena egin zezan.

Errepide Zuzendaritzaren txostenak dio ez dagoela eragozpenik Plan partzial honen onarpenerako eta sahiesbide-errepidearen ertzaren ordenamendu zehatza egitearena urbanizazio proiektuan eta 10-12 Hirigintz Areatako B.E.B.E.an exigitzen den GI-120aren desplazamendu proiektuan egingo dela.

Alkateak esaten du Plan Partzial honetan babes ofizialeko etxebizitza edo edozein motatako herri babeseko aipamena egiten denean babes ofizialeko edo Udaletik tasatutako etxebizitzak ulertu behar dela. Baita ere esaten du zenbait etxebizitza bloketan behe solairuan etxebizitzak eraikiko direla eta garajera bidea egiterakoan arazorik egon ez dadin, garajeetarako bidea herri jabarian kokatu ahal izango dela eta hau urbanizazio proiektua egiterakoan zehaztuko dela jarrita uztea beharrezkoa ikusten dela.

Guzti honen aurrean eta Hirigintza Batzordearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, honako akordioak hartzen ditu:

1. 1. Sektoreko Plan Partzialari behin behineko onarpena ematea, honako hauek kontutan hartuta:

1.1. Babes ofizialeko etxebizitza edo edozein motatako herri babeseko aipamena egiten denean babes ofizialeko edo Udaletik tasatutako etxebizitzak ulertu behar da.

1.2. Garajera bidea egiterakoan arazorik egon ez dadin, garajeetarako bidea herri jabarian kokatu ahal izango da eta hau urbanizazio proiektua egiterakoan zehaztuko da.

2.- Dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honek behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan.

#### V.- FUTBOL ZELAIKO LANEN OBRA ZERTIFIKAZIOAK.-

Arizti Haundi Futbol Zelaiko Birmoldaketa eta Aldagelak proiektuaren obra zuzendaritzak lan hauen lehen eta bigarren zertifikazioak luzatu ditu. Futbol Zelaiaren Birmoldaketa lanen lehen zertifikazioa 37.818,48 eurotako da, 2. zertifikazioa 17.923,45 eurotako; Aldagela proiektuaren lehen zertifikazioa 29.507,88 eurotako eta 2. zertifikazioa 58.972,28 eurotako.

Obra zertifikazio hauek udal teknikarien oniritzia jaso dute.

Hau kontutan izanda eta zertifikazio hauek aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, zertifikazio hauek onartzea erabakitzen du.

#### VI.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Alkateak esaten du proposamena, orokorrean, ordenantza fiskalak kontsumoko prezioen indizearen aldaketaren arabera aldatzea dela, hau 2003ko abuztutik 2004ko abuztura hartuta, hau da, % 3,2ko igoera aplikatzea. Esaten du baita ere, erizpide orokor honi egiten zaizkion salbuespenak honako hauek liratekela:

- Ur hornidura: finkoa %10 igotzea; aldakorra, etxebizitzentzat %15 eta etxebizitza ez denean %20 igotzea.

- Zabor bilketa: %5 igotzea.

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, industrientzat: milako 6tik 5,5era jeitsi eta honi KPIren aldaketan igotzea, milako 5,67an geldituko delarik.

- Kirol ikastaroak: aerobik, mantenimenduko soinketa eta adinduen soinketa, %9,35eko igoera.

- Kanposantuan intzineratutako gorpuak hilobiratzea nitxoetan hilobiratzearen parean jar-  
tzea, hau da 108,78 euro.

- Herri jabaria mahia eta aulkiekin okupatzea: lehen bi dezimalez adierazten zen tarifa  
hemendik aurrera bost dezimalekin adieraziko da, eta metro karratu eta eguneko 0,03081  
euro izango da.

- Tasak ordaintzeko laguntzen ordenantza era honetan egokitzen da: laguntzak ebaztera-  
koan alarguntasun eta jubilazio pentsio minimoa eta lanbide arteko soldata minimoa har-  
tzen dira kontuan eta lehen jarrita zeuden kopuruak gaizki zeuden eta aldatu egiten dira.  
Zuzenketaren ondoren honako zenbateko hauek planteatzen dira: 5.764,64 euro arteko  
diru-sarrerak %100eko laguntza; 7.717,64 euro arteko diru-sarrerak, %75eko laguntza;  
9.670,50 euro arteko diru-sarrerak, %50eko laguntza.

- Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen alde udal herri-bidearen lurzoruan,  
zorupean edo hegalduran erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziak egiteagatiko  
tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa: martxoaren 19ko 4/2003ko Foru  
Araua indarrean sartzearen ondorioz, tasa honen ondorioetarako idazketa berri bat jarri  
da indarrean eta hemendik aurrera zerbitzu horien enpresa uztiatzaileen artean zerbitzu  
horiek banatu eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurreko ekitaldi batzuetan esan duten bezala  
tasen gaia aztertzerakoan gai hau aurrekontuarekin lotuta dagoela eta aurrekontuan  
Udalbiltzari dirulaguntza emateko partida bat dagoela eta beraiek partida honekin ez dau-  
dela ados, aurrekontuari nazional eraikuntza kutsua ematen diolako eta horregatik orde-  
nantza fiskalen aldaketa honen aurka bozkaturiko dutela.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du beste guztiarekin ados dagoela baina ez horrela  
urarenarekin eta iaz ere ohar batzu egin zituela eta orduan esaten zuela uraren igoera  
%10etik gora izugarrikeria iruditzen zitzaiola eta KPIren igoera ikusten zuela zuzena.  
Esaten du baita ere urte honetan aurreko urtean esandakoan baiesten dela eta esaten du  
baita ere iaz gastu eta sarreraren arteko aldea %9a zela eta orain berriz alde hori %11ra  
handitu dela; esaten du baita ere exentorik ez lukela egon behar eta exentorik egon behar  
bada beste era batetara egin behar litzatekela eta exentoei gutxienez kontsumitzen dute-  
naren faktura eta honek duen kostua jakinarazi egin beharko litzatekela, zersuposatzen  
duen jabetu daitezen; esaten du baita ere Ur Kontsortzioak Udalari aplikatzen dion igoe-  
rak tasak igotzera behartzen gaituela; esaten du baita ere bidali zaion dokumentazioan,  
non uraren gaiaren inguruko gastu eta sarrerak agertzen diren, kontzeptuen xehetasuna  
ez dela nahi adinako garbia eta etorkizunean hau hobetu egin beharko litzatekela. Ama-  
tzen du esanez guzti honengatik proposamena aldatzea eskatzen duela ze planteatzen  
diren beste tasa aldaketa guztiekin ados dagoela baina ez horrela uraren tasa aldaketare-  
kin eta ea ez al dagoen bi bozketa egiterik.

Alkateak erantzuten dio esanez proposamena bat dela eta bozketa bakarra egingo  
dela.

Guzti honen ondoren, eta Hazienda Batzordearen proposamenaren aurrean, Udal  
Osoko Bilkurak, aldeko bederatzi botu (EAJ, EA), aurkako bi botu (PSE-EE) eta abstentzio  
batez (PP) bere espedientean dagoen ordenantza fiskalen aldaketa hau onartu egiten du.

## VII.- HAINBAT AUZITAN UDALA BERTARATZEA.-

- G.P. ALGAR, S.L.k.- Euskal Herriko Justizi Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietako Salak, G.P. ALGAR S.L.k, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiaioetan Zoru Ez Urbanizagarri bezala sailkatutako lursailetan, Udal Erreserbarako Lursailen Mugaketa proiektuaren -Amebi eta Kanpandegi guneak- behin-betiko onarpenaren aurka tartejarritako errekurtsu kontentzioso-administratiboaren berri emanez jakinarazpena bidali du Udal honetara.

Honen aurrean, Alkateak, Alkatetzaren ebazpen bidez, Udala prozedimentuan bertaratzea eta Udalaren abogatu Jon Orue-etxebarria Iturri izandatzearabaki du.

Osoko Bilkurak erabakia berretsi egiten du bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin.

- JOSE IGNACIO IRASTORZA LARRETA ETA BESTE BATZUK.- Euskal Herriko Justizi Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietako Salak, Jose Ignacio Irastorza Larreta eta beste batzuk, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiaioetan Zoru Ez Urbanizagarri bezala sailkatutako lursailetan, Udal Erreserbarako Lursailen Mugaketa proiektuaren -Amebi eta Kanpandegi guneak- behin-betiko onarpenaren aurka tartejarritako errekurtsu kontentzioso-administratiboaren berri emanez jakinarazpena bidali du Udal honetara.

Honen aurrean, Alkateak, Alkatetzaren ebazpen bidez, Udala prozedimentuan bertaratzea eta Udalaren abogatu Jon Orue-etxebarria Iturri izandatzearabaki du.

Osoko Bilkurak erabakia berretsi egiten du bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin.

- MARIAN JAUREGI TURRIENTES.- Donostiako 1 zk.dun Lan arloko Epaitegiak Lazkaoko Udalari Marian Jauregui Turrientesek tartejarritako demandaren berri ematen dio, 683/04 autoak sortuz, eskubideen aitortpenari buruz.

Azaldutakoaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, zera erabakitzen du:

~ Francisco Javier Hernaez Manrique letratuaren aldeko ahalmena ematea Donostiako 1 zbk.dun Lan arloko Epaitegian garatzen ari den 683/04 prozeduran udal honen ordezkaritza eta defentsarako.

- HERIBERTA FUENTES MAESTRO ETA BESTE BATZUK.- Donostiako 1 zbk.dun Lan arloko Epaitegian Heriberta Fuentes Maestro eta beste batzuk lazkaoko Udala eta Gizaintza, S.L.ren aurka 686/04 zenbakiarekin erregistratua izan den demanda jarri dute.

Azaldutakoaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, zera erabakitzen du:

~ Francisco Javier Hernaez Manrique letratuaren aldeko ahalmena ematea Donostiako 1 zbk.dun Lan arloko Epaitegian garatzen ari den 683/04 prozeduran udal honen ordezkaritza eta defentsarako.

## VIII.- UDAL HAUTETSIEN BILKURAREN AURKA IREKITAKO SUMARIOAREN INGURUKO MOZIOA.-

Udal honetako Osoko Bilkurak, zera adierazi nahi du:

- 1.- Bere benetako arbudioa Estaduko podereen eskutik sortua den dinamikagatik. Inkisizio berria suertatzen ari den dinamika honen arabera, ez da gehiago ETaren ingururik. Orain dena da ETA. Egiteko modu honetan errugabetasun presunziorik ez da aplikatzen. Euskal gizartearen arlo ugari, kultura zein politika eta giza zenbait ordezkari, erakunde, enpresa eta beraien zuzendari zein babesle beste inolako frogarik gabe arbuiatu, iraindu, boikoteatu eta azkenik kriminalizatu egiten dira. Komunikabide zein enpresak interbenitu, beraien arduradunak auziperatu eta atxilotu. Prozesu hauen ezaugarri dira ziurtasun juridiko eza, epaiketarik gabe urtetako sortzen duten defentsa gabezia eta behin betiko epairik eza. Prozesu hauetan demokrazi batek berezko dituen eskubide zein askatasunak urratu eta baliogabetu egiten dira, urraketa hauek jasatzen dituzten pertsonengan sortzen diren kalteak konponezinak bihurtuz.
- 2.- Bere uste osoa, Euskal Herrian pakea eta elkarbizitza ez direla ez inposaketa, ez inkisizio, ez erantzun bortitzen eskutik etorriko. Ezta norberak defendatzen duen proiektu politikoaren lorpena ere. Hauek zalantzarik gabe modu eta bide demokratiko zein hiritarren borondatearen eskutik etorriko dira.
- 3.- Edozein proiektu eta ideia politikok eskubide eta zilegitasun osoa izan behar duela edozein eszenategi demokratikotan, horrela Euskal Herrian ere.
- 4.- Ildo beretik, euskal herritarrok zilegi dugu gure tresna politikoak, sozialak zein instituzionalak antolatzeak eskubidea, oinarri demokratikoen arabera, horregatik inolako jazarpenik jasan gabe.
- 5.- Orain salatzen den kasuan, nabarmena da inputatuen izaera publikoa, hauteskundee-tan hautatu baitituzte hiritarrek, eta pertsona publikoak baitira. Zeregin publiko horretan jardun izanaren ondorioz, hain zuzen ere, jasaten dute oraingo eraso hau.
- 6.- Gure arteko desberdintasunen gainetik, gure elkartasuna adierazi nahi diegu lehen zein orain auziperatu dituzten guztiei.
- 7.- Auzibide judiziala ez da modurik egokiena arazo politikoei konponbidea aurkitzeko. Al-diz, eragile politiko guztiei hitza ematea da irtenbide eraginkorra. Horretan, gure konpromiso publikoa adierazi nahi dugu oraingo honetan ere.

Jendartetik Urko Irastortzak esaten du, besteak beste, mozioan nahiko garbi azaltzen dela auzi eta sumario erabat politikoa dela; baita ere esaten du delitorik ez dela egon eta frogarik ez dagoela eta demokrazi batean horrelakoak ez luketela lekurik izan behar.

Alkateak esaten du beraiek mozioaren alde bozkatuko dutela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du errealitatearekin bat ez datorren mozioa dela iruditzen zaiela eta hor esaten diren gauza asko ez direla horrela baizik eta mozioa aurkezten duten horiek askotan posizionatu behar izan dute gizarteko sektore zabalak

boikoteatu eta kriminalizatzen dituzten egintzen aurrean eta ez direla horien alde posizionatu eta mozioaren aurka bozkatu behar dutela. Gehitzen du auzitegi prozesuari dagokionean jsutiziari eskatzen diotela zuzentasunez jokatzeko eta benetan frogarik ez badago absolbitu ditzatela.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du beste batzuetan ere hitzegin duela eta ez daukala ezer asko esateko baina gehitzen du ETA hor dagoela oraindik eta jendartean daudeneri zuzenduz esaten die beraiekin txakolina hartzea guztatuko litzaiokeela baina ezinezkoa zaiola lasaitasunez egitea.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Udal Osoko Bilkurak, aldeko 9 botu (EAJ, EA) eta aurkako hiru botuz (PSE-EE, PP) mozioa onartu egiten du.

#### IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hamabi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.